

ESKORIATZAKO UDALERRIKO IZAERA PUBLIKOKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA HORIEK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza teknikoen agiri honen helburua da Eskoriatzako udalerriko berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko, horien mantentze-lanak egin eta horiek garbitzeko ezaugarri espezifikoak zehaztea.

2.- KONTRATUAREN EREMUA

Kontratu honen eremua baldintza tekniko agiri honetako 10. kapituluan deskribatutako eta horri erantsitako planoetan agertzen diren zonaldeek osatuko dute.

3.- ZAINKETA LANAK

Berdeguneak zaintzeko lanak ondoren adieraziko diren baldintzen arabera egingo dira:

BETEBEHARREKOAK:

3.1. Soropila moztea

Soropila behar den guztietan moztuko da, lorategia lotsagarri egoteko moduko eta soropilarentzat kaltegarria izan daitekeen altuera har ez dezan; soropilaren luzera zonaldeen arabera izango da.

Soropil guneak: 10 cm-ko gehienezko luzera, eta gutxienez hilean behin moztu beharra.

Ezponda aldeak: 2 belar mozketa edo 2 garbiketa urtean.

Moztutako soropila egunean bertan batu beharko da, eta hondakindegira batera edo Udalak zehaztutako lekura eraman.

Bakarrik ezinbesteko arrazoiengatik ez da jasoko soropila moztutako egun berean. Kasu horretan, beharrezko neurriak hartuko dira soropilak ingurua zikindu ez dezan eta ahalik eta lasterren kentzeko.

3.2. Ureztatzea

Baldintza edafoklimatikoen eta landare espezieen arabera, landareak noizbehinka edo egunero ureztatuko dira, hala behar duten urtaroretan, behar adina ur izan dezaten lurrean.

Landareak ureztatzeko ihinztagailu automatikoak edota mahukak erabiliko dira. Landareak ureztatzeko garai onena eguneko lehen orduak dira.

Enpresa esleipendunak lehentasunez, eta ahal duen guztietan, edateko ez den baina ureztatzeko egokia den ura erabiliko du (euri ura, ur araztua eta abar)

Erabilitako ura Udalaren kontura izango da, eta esleipendunak ezingo du ureztatzeko behar beharrezkoa baino ur gehiago erabili. Ur hartuneak gaizki itxita egotearen edo beste edozein arrazoiengatik ur galerarik ez egotea zaindu beharko du, eta matxuraren bat izanez gero, berehala konpondu.

Baldintza hori ez badu betetzen edo ureztaketa egokia ez bada (ur hartuneak gaizki itxita daudelako, adibidez), eta ondorioz, ura galdu, lurra higatu edo beste edozein kalte gertatzen bada, esleipendunak bere kontura lehengoratu du kaltetutako eremua. Era berean, galdutako ura ordaindu beharko du.

3.3. Bazterrak moztea

Soropil gune mugetan, soropilak bideak eta lore parterreak har ez ditzan, soropila mozten den bakoitzean bazterretako soropila ere moztu beharko da, eta gutxienez urtean hiru aldiz moztu beharko dira soropil gunetako bazterrak, sobratzen dena errotik atereaz.

3.4. Tarteak aitzurtzea eta jorratzea

Soropiletan belar txarrak laborantza-tresnekin edo eskuz kenduko dira.

Lore guneetan maiz aitzurtuko dira tarteak, belar txarrik ez hazteko eta lurraren egitura egokiari eusteko. Maiztasuna tokiko klimaren araberakoa izango da. Zuhaixa eta zuhaitzak urtean bitan aitzurtuko dira, udaberrian eta udazkenean, sustraiak kaltetu gabe; sakonera: 12-15 zentimetro.

Txorkoetako belarrak ez dira sekula moztuko, atera egingo dira behar hainbestetan. Ezingo da herbizidarik erabili Udalak horretarako berariazko baimenik ematen ez badu.

3.5. Berrelikatzea

Higadurak edo trinkotzeak belar sustraiak airean utziz gero, belarra moztutakoan berehala berrelikatuko da lurrustel eta hondar nahasketa batekin. Ondoren, alperra pasako da.

3.6. Ongarritzea

3.6.a.- Ongarri mineralak berdegune, txorko eta jardineretan.

Hau da, beharrezko diren ongarri mineralak eta beste produktu mineral batzuk botatzea soropiletan, sasoi lore multzoetan, landare bizikorrei, zuhaixa taldeetan, berdeguneetako zuhaixa eta zuhaitz taldeetan, kaleetako txorko lerroetan eta jardineretan, landareen garapen eta egoera fisiologiko ona lortu ahal izateko.

Lan horiek egiteko sasoi, nagusiki, udaberria eta udazkena izango dira, eta sasoi horien artean egiteko beharra ikusiz gero, dagokion agindua jasotakoan egin beharko da. Ongarri mineralak egon dauden landareekin erabiliko dira, sartu berritan botatzeko ongarrietatik bereiziz.

Erabiliko diren produktuen osagaien artean N,P eta K elementuak izan beharko dira, bai elementu isolatu bezala edo nahasian, eta osagaien konposizioa eta aberastasuna agertu beharko da. Oligoelementuak ere izan ditzake. Halaber, lurraren egitura hobetzeko beharrezkoa balitz, karea erabiliko da (ahal bada, karea bizia).

Zelaietan belarraren gainean botako da ongarria, eskuz edo baliabide mekanikoen bidez. Baina, zuhaixkak, zuhaitz taldeak, palaxuak, lore multzoak, tipulak edo bizikorrak ongarrizatzeko jorratutako lekuan botako da ongarria, eta ondoren, eskuarearekin edo lurrustelarekin estali.

Bota beharreko ongarri dosia ongarri mota edo ongarritu behar diren aldeak kontuan hartuta egingo da, proposamenarekin batera eskatuko den azterketaren eta eskaintzetatik ateratako ondorioen arabera.

3.6.b.- Ongarri organikoak.

Ongarri organikoa botatzeko simaur hartzitua, belar txar gabea eta horretarako beren beregi zaindutakoa erabiliko da; zizare gorriaren humusa ere erabil daiteke, edo oilo-kaka, hartzitua, lurrustela, eta abar.

Zelaian ez da inoiz simaurrik erabiliko, lurrustela edo zizarearen humusa baino; eta zuhaixka, sasoiko palaxu, lore multzo, zuhaitz multzo, arrosa multzo eta abarretan, simaurra botako da aitzurtutako sailetan.

Ongarriztatzea udazkenean edo neguan egingo da, eta aurrez Udalaren oniritzia izan behako du. Ongarriztatze mineralarekin bezala, erabili beharreko dosia ongarri mota eta ongarritu beharreko aldeak kontuan hartuta egingo da, proposamenarekin batera eskatuko den azterketaren eta eskaintzetatik ateratako ondorioen arabera.

UDAL KONPOSTA

Udalak bere konposta baldin badu, esleipendunak konpost hori jaso, garraiatu eta zabaldu beharko du zerbitzuan aurreikusitako baliabideekin.

Kasu horretan, ongarriztatzeari (Udalekoa ez den ongarriarekin) dagokion kanona kenduko da partidatik edo diru hori beste zerbitzu mota batzuetarako erabiliko da.

3.7. Tratamendu fitosanitarioak egitea.

Esleipendunak, bere baliabideekin, kontratuko helburu diren zonaldeetako berdegunetan edo landaretan gaixotasunak eta izurriak prebenitzeko tratamenduak egingo ditu garai egokietan, eta baita gaixotasunak eta izurriak desagerrarazteko tratamenduak ere. Horretarako, ahal den guztietan lorezaintza ekologikoko produktu eta metodoak erabiliko ditu, hau da, bai pertsonentzako bai ingurumenerako ahalik eta toxikotasun eta eragozpen gutxienekoak. Tratamendua hasi baino lehen idatziz jakinarazi beharko zaio Udalari kasu bakoitzean erabili beharreko formula, metodoa eta dosia.

Tratamendua herritarrei eragozpenik ez sortzeko orduetan egingo da.

Erabiliko diren produktu fitosanitarioak eta ongarriak esleipendunak jarri beharko ditu, halaber, tratamenduak kontrolatu eta jarraipena egiteko informazio teknikoa jasotzeko sistema egokiak izan beharko ditu.

Eskaintzarekin batera lorategien gaur egungo egoeraren eta epe motzean eta ertainean egin beharreko ekintzen gaineko azterketa teknikoa aurkeztu beharko da. Azterketak eskaintzaren kalitate teknikoa baloratzeko balioko du.

3.8. Zelaiak aireztatzea

Zelaietan urtean bi aldiz gutxienez aireztatzailea pasa beharko da, eta ondoren, zelaiak berrelikatuko dira lurrustel edo zohikatzarekin eta hondarrarekin. Aireztatzean sortutako zatiak kendu eta atera edo zelai gainean txikitu beharko, zelai berrelikatu baino lehen. Ondoren alperra pasa eta ureztatu egingo da. Lan horien maiztasuna, aurrez Udalak eskatuta, lorategien egoeraren arabera izango da. Lanak egiteko materialak esleipendunak jarri beharko ditu.

3.9. Lore parterreak

Garaiko landareei dagokienez, landare berriak kontratistak landatuko ditu bere kargura. Aurreikusitako parterretan beti egon beharko dira loreak, eta horiek landatzeko lan guztiak ere bere kargura izango dira. Eskaintzarekin batera landare egokiaren eta landaketa programaren azterlana aurkeztu beharko da. Azterlanak eskaintzaren kalitate teknikoa baloratzeko balioko du.

3.10. Garbitzea

Esleipendunaren mendeko langileek zorrotz eta etengabe garbituko dituzte baldintza agiri honetako eremuko berdegune guztiak.

Kendu beharko dituzte berez jaiotzen diren landareak (belar txarrak); erortzen diren hostoak; belarra moztutakoan eta inausketa lanak egindakoan geratutako hondarrak; eta kontratuko zonaldeetan izan daitezkeen paperak, hondakinak eta zaborrak.

Esleipendunak, gai horiek erratzez garbitu, bildu eta pilatzeaz gain, berehala kendu beharko ditu berak dauzkan bitartekoekin eta bere kontura. Horrez gain, txorkoetako zaborrak ere kendu beharko ditu.

AUKERAKOAK

- 1.- Sastraka kentze lanak Torrebason.
- 2.- Arrantzaleen bidea garbitu eta mantendu
- 3.- Konpostagailuen kudeaketa eta mantenua

4.- BERRITZE LANAK.

Garaiko landareak, landare iraunkorrak, bizikorak, zuhaixkak, zuhaitzak, zelaiak eta abar ordezkatzeko edo berrizatzeko lanak dira hauek, eta landareek itxura ederra erabat edo nabarmen galdutakoan edota landareen itxura kaxkarra ikusita laster egoera horretan egongo direla aurreikusitakoan egingo dira.

Lan horiek guztiak esleipendunaren kontura izango dira landareak hil edo horien egoera txarra honako arrazoi batengatik denean:

- Ureztatzean akatsak izan direnean ez delako ureztatu, gaizki egin delako, berandu, behar besteko dotaziorik gabe edo gaizki erabilita, edo instalazioak apurtutakoan ez denean zerbitzurako beste ureztatze sistemarik jarri.
- Tratamendu fitosanitarioetan egindako akatsak honako arrazoiengatik: ez egin, gaizki egin, berandu egin, behar besteko dotaziorik gabe egin edo horiek gaizki erabilita egin.
- Zaharregia izan berriztatzerik egin ez delako.
- Berritze lanetan edo landaketetan esleipendunak egindako markak.

Horrelako kasurik egon ezean, Udalak jarriko ditu berritzerako behar diren landareak, eta esleipendunaren kontura izango dira horiek landatzeko egin beharreko lan guztiak. Lan horiek, hasiera batean eta kontrako agindurik ezean, esleipendun berriaren jardura hasieraren hurbilenean garai egokienean egin beharko dira, eta Udalak markatutako eta bere ikuskaritzapean egin beharreko berritze lan edo landaketa berriak hartuko ditu. Esleipendunak urtero aurkeztu beharko dio Udalarari galdutako landareen kopurua eta horien zerrenda; halaber, zimeldutako landare guztiak eta udal arduradunen iritziz egoera fitosanitarioarengatik horrela eskatzen dutenak moztu eta kendu beharko ditu. Jarri beharreko landare berrientzako egoki den sakoneraraino kendu beharko dira sustraiak, eta beharrezkoa balitz, zuloa egiterakoan ateratako lurra eta gainontzeko

materialak berriztuko dira. Gainera, landarea behar beste estalita eta ureztatzeko txorkoarekin gelditu beharko da. Kasu berezietarako, hala nola, zuhaitz handi eta bestelakoetarako, horien ordeztatu beharreko landareen ezaugarriak Udalak ezarriko ditu.

Gainera, esleipendunak bere ustez berritu beharko liratekeen soropil guneen zerrenda behar bezala arrazoitua aurkeztu beharko du urte bakoitzeko lehen bi hilabetetan, udal arduradunek aztertu eta balioztatu beharko dutena.

Urtero, eta Udaletik jarritako irizpideen arabera, enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu derrigorrez:

- Lorategiak berreskuratzeko, gutxienez 2.975 euro loretan eta 1.500 euro zuhaixka eta tamaina txikiagoko beste landare batzuetan gastatu beharko ditu.
- Gutxienez 500 euro gastatu beharko ditu zuhaitzetan.
- Gutxienez 750 m² zelai berreskuratzea lurra landu, erein eta lorategi eginez (egoki jotzen bada, neurri honen ordeztu beharko dira; hala bada, gutxienez beste 500 euro landaretan urteko)

5.- INAUSKETA.

Lan hau garai egokienean egingo da beti, eta Udalak landare mota, leku eta egoera bakoitzeko emandako irizpideen arabera egingo da, betiere, arau orokor hauei jarraituz:

Lehendabizi gaixotutako, hondatutako edo hildako adarrak inausiko dira.

Adar bizi eta egoera onekoak kentzea bakar-bakarrik adaburua soiltzeko, sustrai galera konpentsatzeko, zuhaitzari itxura emateko eta zuhaitz zaharrak edo indar gutxikoak indartzeko egingo da.

Oker hasitako, gurutzatutako edo elkarrengandik gertuegi dauden adar txikiak kenduko dira zuhaitzaren itxura naturala gordez.

Ez da inausketa gogorrik egingo, eta egin behar badira, bakarrik oso kasu zehatzetan eta betiere Udalaren agindupean.

Kaleetan zuhaitzak inausiko dira kable elektrikoei eta telefonikoei, semaforoei, etxeei, ibilgailuei eta abarrei trazarik ez egiteko eta baita adarrak berez eror ez daitezen ere.

Kasu guztietan, behar beharrezkoa da mozketak zuzen egitea eta zauriak behar bezala zaintzea.

Adarrak ipurditik moztuko dira, zauria berdinduta utziz zuhaitz aldean. Ez da adar zatirik utziko kanpora begira, horiek infekzio gune izan eta orbaintzea zailtzen dutelako.

Ahalik eta mozketak gutxien egingo dira, tamaina txikikoei lehentasuna emanez. Mozketak garbiak izan beharko dira, beraz, horretarako erabiliko diren tresnak zorrotzak izan eta desinfektatuta egon beharko dira.

5 cm-tik gorako diametroko zauria duten mozketak guztiak fungizidaren batekin tratatu beharko dira. Fungizida bota aurretik horren formula onartu beharko du Udalak. Fungizida zuhaitza inausi bezain laster eman beharko da.

Istripuz edo aurreko urteetan gaizki egindako mozketen ondorioz sortutako zauriak ere tratatu beharko dira.

Zuhaitzek handitzeko behar beste leku duten lorategietan, plazetan eta beste berdegune batzuetan osasunez egoera onean edukitzeko, itxura egokia emateko eta loratzeko behar besteko maiztasunez egingo da mozketak.

Kaleetako ilarako zuhaitzei dagokienez, bereizi beharra dago alde batetik astigar zuria eta ezkia, urtero inausten direnak; eta bestetik, gainontzeko zuhaitz hostoerorkorrak. Azken horiek inausteko maiztasuna Udalak zehaztuko du.

Zentzu horretan, esleipendunak urteko inausketa plana aurkeztu beharko du irailean, egin beharreko aldaketak egin ondoren Udalak onartu dezan, eta bertan adierazi beharko dira kaleak, zuhaitz motak, inausketa mota eta inausketa egutegia.

Lan hori egiteko beharrezko mozketak tresna guztiez gain (motozerrak, aizkorak, guraizeak eta abar), esleipendunak mozketaren ondorengo hondakinak kentzeko beharrezko baliabide mekanikoak izan beharko ditu. Hondakinok berehala kendu beharko dira.

Zenbait lan egiteko seinalizazioa, bereziki, ilarako zuhaitzen inausketa, esleipendunaren kontura izango da. Horretarako, beharrezko elementu guztiak izan beharko ditu, hala nola, obra-hesiak, trafiko seinaleak eta abar, lana zuzen egiteko behar besteko kopuruan.

6.- OBRA BERRIAK EGITEA ETA DAGOENA HOBETZEA

Udalak lore gune berriak sor ditzake, zelai berriak jarri, zuhaitzak landatu, lekuz aldatu, zola aldatu eta egoki irizten dion beste edozein jarduera gauzatu.

Kontratua mantentze-lanetarako denez, esleipendunak ezin ditu zaindu beharreko elementuen itxura eta ezaugarriak aldatzen dituzten obra berri edo berrikuntzak egin Udalaren berariazko baimenik gabe.

7.- LANGILEAK

Esleipendunak zaintza lanak behar bezala egiteko behar adina langile edukiko ditu. Langile horien buru, zuzenean edo zeharka, parke eta lorategietan esperientzia edo prestakuntza egiaztatuta duen teknikari bat izan beharko da.

Urtean sei hilabetez lanean gutxienez bi pertsona aritzea eskatuko da, eta hiru pertsona beste sei hilabetez (inausketa lanak, udaberri-udako belar mozteak eta abar), aipatutako lanak egiteko aurkeztutako eskaintzak hartzen dituen egun guztietan.

Aipatutako gutxieneko langileen artean derrigorrez izan beharko dira arduradun bat eta lorazain ofizial bat.

Udalari jakinarazi beharko zaio langileen izenak, maila eta gainontzeko gorabehera pertsonalak, eta baita horiei buruz egon daitezkeen aldaketak ere. Lehiatzaileek honakoa zehaztu beharko dute eskaintzetan: kontratazioaren helburu den zerbitzuak egiteko beharrezko langile kopurua eta horietako bakoitzaren lanaldia eta funtzioak.

Langileen oporregatik edo lan edo istripu baja dela-eta, langileren bat ezin denean lanera joan, esleipendunak beste langileren bat jarri beharko du eta horren berri idatziz eman Udalari, ordezkapena egin behar duen langilearen izena adieraziz.

Enpresa esleipenduneko langileek ez dute izango inolaz ere inolako izaerako lan lotura edo harremanik Eskoriatzako Udalarekin.

8.- MATERIALA ETA TRESNAK

Zerbitzua emateko beharrezko material, makineria eta tresna guztiak erostea esleipendunaren kontura eta kargura izango da, eta baita horien mantentze-lanen eta ondo zaintzearen kostua ere.

Makineria guztia erabiltzeko moduan, ondo zainduta eta garbi egon beharko da uneoro, eta beraz, erreserba ekipoak ere izan beharko dira horretarako.

Kontratuak dirauen bitartean erabili beharreko material, makineria eta tresna guztiak esleipendunaren jabetzakoak izango dira, eta kontratua amaitutakoan ere bereak izaten jarraituko dute.

Gutxienez, honako material hau izan beharko du:

- Sasi-garbitzeko makinak (3)
- Belarra mozteko makinak (2)
- Belar-biltzaileak (3)
- Tona gutxiko kamioneta garbiketa, belar mozketa eta inausketa hondakinak batzeko (1).
- Heskai-moztekoak (3).
- Tresna txikiak eta lanabesak.
- Ureztatzeko materiala (mahukak, pitak, ihinztagailuak eta abar)

9.- ZERBITZUEN MAIZTASUNA.

Mantentze-lanak ondorengo lan programaren arabera egingo dira:

- . Martxoa, apirila eta maiatza: 3. eta 4. zainketa eta berritze ataletan aipatutako lan guztiak.
- . Ekaina, uztaila eta abuztua: 3. zainketa atalean aipatutako lan guztiak.
- . Iraila, urria eta azaroa: 3. zainketa atalean aipatutako lan guztiak.
- . Abendua, urtarrila eta otsaila: 3., 4. eta 5. ataletako lan guztiak.

10.- ZONAKATZEA, ETA ZONA BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO LANAK ETA GUTXIENEN MAIZTASUNA

Ondoren zehazten dira baldintza agiri honen helburu diren zerbitzuak zein zonatan egin behar diren eta horietan egin beharreko lanak.

10.1-Olazar auzoaren eta Aretxabaletako mugaren arteko bidegorria.

- Lanak:** baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.
- Gutxienerako maiztasuna:** urtean 2 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.

10.2- Apotzagako hilerria.

- Lanak:** baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.
- Gutxienerako maiztasuna:** urtean 6 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu, eta urtean 2 aldiz landare-hesiak moztu eta jorratzea.

10.3- San Pedro eta Intxaurtxueta auzoak.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.4- Kiroldegiko kanpoko igerilekuko belartza.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna: landare-hesi guneak urtean 2 aldiz jorratu, 11 aldiz belarra moztu (2 aldiz urtarrila eta maiatza artean, hilean 2 aldiz ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean, eta 1 urria eta abendua artean).

10.5- Santa Ana auzoa, Gaztañadui kalea eta Eduardo Gorosarri plaza.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.6- Olazar auzoa eta Eskoriatzako hilerria.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna:

- Hilerri inguruan: urtean 2 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu (bata ekaineko hirugarren astean).
- Hilerriaren eta Bolibarko errepidearen arteko zatia: urtean behin belarra moztu eta sastrakak garbitzea (irailean).
- Sorautz baserriaren eta Dorleta auzoaren arteko bidegorria: urtean behin, uztailean.

10.7 Herrigune historikoa (Hidalga kalea, Fernando Eskoriatza plaza, Gernikako arbolaren plaza eta San Juan kalea).

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.8- Dorleta auzoa.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.9- Arbiñoste pasealekua eta Bidebarrieta pasealekua.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna:

- Bidebarrieta (Antontxu eta alberja zaharraren artean): urtean behin (ekainean) belarra moztu eta sastrakak garbitu.
- Arbiñoste: urtean 3 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.

10.10- Aranburuzabala kalea eta Olaeta auzoa.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.11 Aingeru Guarda pasealekua.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna: urtean 4 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.

10.12- Aingeru Guardako biribilgunea eta biribilgunetik Kuartuena auzora arteko bidegorria.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna:

- Biribilgunea: urtean 2 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.
- Bidegorria: urtean 2 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.

10.13- Ur-depositu zaharreko, Bolibarko ur-deposituko eta Atxorrotzeko parkeak.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna:

- Atxorrotz: urtean 2 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.
- Ur-deposituak: urtean 4 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.

10.14- Mendiola, Bolibar, Gellao, Mazmela, Zarimutz eta Maringo elizateetako lanak. Elizateetako hilerrietan, inguruetan eta elizateetako elizen inguruan.

Lanak: baldintza agiri honetako 3.1 eta 3.10 artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna: urtean 3 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu (bata urriko hirugarren astean).

10.15- Landako monumentua.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.16- Bainuetzeko parkea (Torrebaso industrialdea).

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.17- Ibarraundi Museoa.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10.18- Santa Marina plaza.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

10. 19- Antontxu kalea (Antontxu baserriaren eta Aranburuzabala kalearen artean).

Lanak: arekak eta ezpondako sastrakak garbitu.

Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz.

10.20- Kuastruena auzoa.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna: urtean 4 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.

10.21- Elorreta auzoa.

Lanak: baldintza agiri honetako 3., 4. eta 5. artikuluetan aipatutako guztiak.

Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra moztu eta sastrakak garbitu.

12.- LANEN ANTOLAMENDUA ETA KONTROL SISTEMAK

12.1.- Zerbitzuaren antolamenduaren azterketa osoa eta zehatza aurkeztuko da, eta honako hauek zehaztuko dira eman beharreko zerbitzu guztietarako: proposatutako ekipoak, ekipo bakoitzari esleitutako zereginak, baliabide materialak, ibilbideak, ordutegiak, maiztasunak, kontrol-sistemak eta abar.

12.2.- Enpresa esleipendunak urtero aztertu beharko ditu egitea komeni zaizkion aldaketak, eta aldaketa horiek jasoko dituen plan berria aurkeztu beharko dio Udalari, onar dezan

12.3.- Kontratatzen diren zerbitzuak udal administrazioaren ikuskaritzapean egongo dira etengabe, eta Udalak nonahi eta noiznahi egin ahal izango ditu pertsonal nahiz material ikuskapenak

Administrazioak agintzen duen ikuskapena zerbitzuaren lokal eta bulegoetara sartu ahal izango da, eta antolamenduari buruz eskatutako datu guztiak eman beharko zaizkio.

Hiruhileko bakoitzaren hasieran esleipendunak hiruhilekorako plangintza aurkeztuko du, eta ondoren, hile bakoitzerakoa. Kontratatutako zerbitzuaren arduradun zuzena udal arduradunekin bilduko da txosten konparatzailea aurkezteko, eta kontratuan aurreikusitako jarduketekin zenbateraino bat datozen baloratzeko, zer desbideratze gertatu diren ikusteko, eta horien arrazoiak eta justifikazioak aztertzeke, halakorik balego.

Txostena ondo dokumentatuta egongo da, eta egindako zeregin guztiak argi eta zehatz jaso beharko ditu (jarduketak, azalpen teknikoak, argazkiak, hautemandako gorabeherak, konponketak eta abar).

CONTRATACIÓN DE LOS TRABAJOS DE CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADOS DE PASEOS EXISTENTES EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA QUE TENGAN CARÁCTER PÚBLICO.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

Es objeto de este Pliego de Condiciones Técnicas, la determinación de las características específicas a las que deben ajustarse los trabajos de conservación, mantenimiento y limpieza de zonas verdes, parques, jardines y arbolado de paseos existentes en el término municipal de Eskoriatza.

2.- ÁMBITO DEL CONTRATO

El ámbito de este contrato lo comprenden las zonas descritas en el capítulo 10 del presente Pliego de Condiciones Técnicas y reflejadas en los planos adjuntos.

3.- LABORES DE CONSERVACIÓN

El conjunto de labores se realizarán ajustándose a las condiciones para conservar las zonas verdes, que se detallan a continuación:

OBLIGATORIAS:

3.1. Siega de céspedes.-

Se realizará con la frecuencia precisa para que la hierba no alcance una altura tal que suponga un desdoro para el jardín y un perjuicio neto para el césped, entendiéndose esta altura, según las zonas.

Zonas de césped: Altura máxima 10 cms. y una vez al mes como mínimo.

Zona de taludes: 2 cortes de hierba o césped o 2 limpiezas anuales.

La recogida del producto resultante deberá realizarse el mismo día del corte, transportándolo a vertedero o a lugar que especifique el Ayuntamiento.

Sólo causas de fuerza mayor serán excusa suficiente para no retirar la hierba cortada el mismo día. En este caso se tomarán las medidas necesarias para que la hierba no sea motivo de suciedad en la zona y se retire a la mayor brevedad posible.

3.2. Riego

Los elementos vegetales se regarán esporádicamente o diariamente en las épocas del año que fuese necesario, dependiendo de las condiciones edafoclimáticas y de las especies de plantas existentes de forma que encuentren en el suelo el porcentaje de agua útil necesario para su normal desarrollo.

Los riegos se realizarán mediante las instalaciones de riego automático con aspersores, o mediante el uso de mangueras, siendo el momento más indicado para regar las primeras horas de la mañana.

La empresa adjudicataria deberá usar preferentemente, y siempre que sea posible, agua que no sea para consumo humano y que sea apta para riego (agua de lluvia, agua depurada, etc.).

El agua consumida será a cuenta del Ayuntamiento, debiendo el adjudicatario no utilizar mas agua que la estrictamente necesaria para el riego, cuidando que no se produzcan perdidas por bocas de riego mal cerradas o cualquier otro motivo, corrigiendo inmediatamente cualquier avería.

Si por el incorrecto cumplimiento de este extremo de la realización de los riegos (bocas mal cerradas) se produjeran derrames de agua, erosiones del terreno u otros perjuicios, el adjudicatario restablecerá por su cuenta la situación primitiva en la zona dañada. Asimismo, correrá de su cuenta el costo de agua derramada.

3.3. Recorte de bordes

En los límites de las áreas de césped y con objeto de que éste no invada las zonas de caminos o parterres de flores, se realizará cada vez que se recorte dicho césped y por lo menos tres veces al año un recorte del borde de la superficie, arrancando la parte sobrante.

3.4. Entrecavado y escarda

En los céspedes se eliminarán las malas hierbas mediante cuidados culturales o a mano .

Los macizos de flor se entrecavarán frecuentemente de tal forma-que- no existan malas hierbas y que se mantenga la buena estructura del suelo. La frecuencia dependerá de la climatología local. A los arbustos y árboles se les dará dos entrecavados, uno en primavera y otro en otoño de una profundidad de 12 a 15 cms., sin afectar al sistema radicular.

Las hierbas de los alcorques serán extraídas, nunca cortadas, cuantas veces sean necesarias, no pudiéndose utilizar herbicidas si no existe autorización expresa del ayuntamiento.

3.5. Recebado

En caso de que la erosión o compactación dejarán al aire parte de las raíces del césped, deberá recebarse inmediatamente después de un corte con una mezcla de mantillo y arena. A continuación se pasará el rodillo.

3.6. Abonado

3.6.a.- Abonos minerales en zonas verdes, alcorques y jardineras.

Consisten en el aporte sobre las praderas de césped, los macizos de flor de temporada, las vivaces, las masas de arbustos y el arbolado de zonas verdes y alcorques de alineación en calles, así como en jardineras, de abonos minerales y de cuantos productos de carácter mineral fueran necesarios para conseguir un mejor desarrollo vegetativo y un perfecto estado fisiológico de los citados vegetales.

Las épocas de aplicación serán en primavera y en otoño principalmente y si se observara la necesidad de realizarlo entre dichas épocas, éste se realizará igualmente una vez se reciba la correspondiente instrucción. Los abonados minerales se entenderá que deben realizarse sobre vegetales ya establecidos, diferenciándose de los abonados de establecimiento inicial.

Los productos utilizados consistirán en abonados que lleven en su composición los elementos N,P,K, bien como elemento aislado o en mezclas, debiendo figurar la composición y riqueza de los elementos que lo componen. También pueden llevar oligoelementos. Asimismo se usará cal, si fuera necesario para mejorar la estructura del suelo, (preferible cal viva).

En las praderas, la aplicación será sobre el césped, bien de forma manual o de forma mecánica. Pero cuando el abonado se realice sobre los arbustos, arbolados, setas, macizos de flor, bulbos o vivaces, éste se practicará sobre la zona sallada, y una vez aportado se procederá a su cubrición mediante el rastrillado correspondiente o mediante el aporte de mantillo orgánico.

Las dosis a utilizar variarán en función del tipo de abonos y de las zonas a abonar, según un estudio que se exigirá junto a la propuesta y de las conclusiones que se adopten de las ofertas.

3.6.b.- Abonos orgánicos.

El abonado orgánico se realizará utilizando estiércol fermentado, libre de malas hierbas y debidamente cuidado para tal fin, o bien con aporte de humus de lombriz roja, gallinaza, fermentado, mantillo, etc.

En la pradera nunca se utilizará el estiércol sino el mantillo o el humus de lombriz, y en los arbustos, setas, macizos de flor de temporada, arbolado, rosaledas, etc. se usará estiércol depósitos en las zonas entrecavadas.

La época de realización será en el otoño-invierno y deberá contar con el visto bueno del ayuntamiento. Al igual que el abonado mineral, las dosis a utilizar variarán en función del tipo de abonado y de las zonas a abonar, según un estudio que se exigirá junto a la propuesta y de las conclusiones que se adopten de las ofertas.

COMPOST MUNICIPAL

En caso de que el Ayuntamiento pueda facilitar compost propio, el adjudicatario se tendrá que hacer cargo de recoger, transportar y aplicar dicho compost con los medios contemplados en el servicio.

En este caso se detrerá del canón la partida correspondiente al abonado(con abono no municipal) o se reutilizará dicha catidad para otro tipo de servicios.

3.7. Tratamiento fitosanitarios

El adjudicatario quedará obligado a realizar con sus propios medios y en las fechas oportunas los tratamientos preventivos necesarios para impedir la iniciación o propagación de cualquier enfermedad o plaga que pudieran aparecer en alguno de los cultivos o en terrenos de zonas verdes objeto del contrato, así como aquellos otros encaminados a combatir en su totalidad la enfermedad o plaga una vez desarrollada. Para ello deberá utilizar preferentemente los productos y métodos de la llamada jardinería ecológica, es decir, lo que sea menos tóxico y molesto posible tanto para las personas como para el entorno natural, debiendo comunicar previamente y por escrito al ayuntamiento las fórmulas, métodos y dosificaciones a emplear en cada caso.

Las horas de tratamiento deberán ser tales que no causen perjuicio al vecindario.

Todos los productos fitosanitarios y nutricionales a emplear, serán aportados por el adjudicatario que, asimismo, deberá disponer de los sistema de información técnica adecuados para poder controlar y seguir la evolución de los tratamientos.

En la oferta, se deberá presentar un estudio técnico sobre situación actual de los jardines y de acciones a emprender a corto y medio plazo, que servirán para valorar la calidad técnica de la misma..

3.8. Aireación de céspedes

Las labores consistirán en pasar por el césped al menos dos veces al año, un aireador procediéndose a continuación al recebo con mantillo o turba y arena. Se deben extraer y evacuar o desmenuzar sobre el césped, antes de proceder a la operación de recebo. A continuación se pasará un rodillo y se regará. La periodicidad de estas labores dependerá de la situación de los jardines, previo requerimiento del ayuntamiento. Los materiales necesarios serán suministrados por el adjudicatario.

3.9. Parterres florales

En lo referente a las plantas de temporada la replantación correrá a cargo del contratista, en los parterres previstos deberá haber flor de forma constante, siendo asimismo a su cargo todas las labores para su plantación. En la oferta deberá presentarse un estudio con las plantas más idóneas y el programa de plantación, que servirán para valorar la calidad técnica de la oferta.

3.10. Limpieza

El personal dependiente del adjudicatario dedicará una atención constante y meticulosa a la limpieza de todas las zonas verdes que son ámbito de este pliego.

Esta labor consistirá en la eliminación, tanto de la vegetación de crecimiento espontaneo (malas hierbas), hojas caídas, restos de labores de siega y recortes de podas, como de los papeles, desperdicios y basuras presentes en esas zonas.

La obligación del adjudicatario no se limita al barrido, recogida y amontonamiento de las indicadas materias, sino que ha de completarse con la retirada inmediata de todas ellas con medios propios a su cargo. También se incluye la limpieza de todo objeto extraño presente en los alcorques.

OPCIONALES

- 1.- Desbroces en Torrebaso.
- 2.- Limpieza y mantenimiento de camino de pescadores
- 3.- Gestión y mantenimiento de áreas de konpostaje.

4.- LABORES DE REPOSICIÓN.

Estas labores consistirán en la sustitución o renovación de las plantas permanentes o de temporada, vivaces, arbustos, arboles, zonas de césped, etc., que hubieran perdido o mermado considerablemente sus características ornamentales, o bien, que su precario estado botánico haga prever tal situación para un futuro próximo.

Estas labores serán en su totalidad a cargo del adjudicatario cuando la muerte o el precario estado de las plantas sea por causa de:

- Anomalías en los riegos por carencia, deficiencia, retraso, dotación inadecuada o aplicación incorrecta, o cuando por roturas en las instalaciones no se pongan a disposición del Servicio otros sistemas de riego.
- Anomalías en los tratamientos fitosanitarios por: carencia, deficiencia, retraso, dotación inadecuada o aplicación incorrecta.
- Excesiva vejez por carencia de reposiciones.

- Marcas producidas en las reposiciones o plantaciones efectuadas por el adjudicatario.

De no darse tales circunstancias, el ayuntamiento suministrará las plantas necesarias para su reposición, siendo a cargo del adjudicatario todas las labores necesarias para la plantación. Estas labores serán realizadas, en principio y salvo indicación contraria, en la época adecuada más próxima al comienzo de las actividades del nuevo adjudicatario y comprenderá todas aquellas reposiciones o nuevas plantaciones que hayan sido marcadas por el ayuntamiento y bajo la supervisión de éste. El adjudicatario realizará anualmente un recuento de las marras que se hayan producido, presentando el correspondiente listado al ayuntamiento, y procederá a la corta y extracción de todas las plantas secas y de aquellas cuyo estado fitosanitario lo haga recomendable a juicio de los responsables municipales. El sistema radicular se suprimirá hasta una profundidad adecuada a la planta a reponer y, en caso necesario, se sustituirá la tierra y demás materiales extraídos al ejecutar la hoya. Además la planta quedará suficientemente cubierta y con alcorque

para el riego. Para casos excepcionales, tales como los grandes ejemplares y otros, las características de las plantas a reponer serán fijadas por el ayuntamiento.

Además, el adjudicatario presentará dentro de los dos primeros meses de cada año una relación debidamente razonada de las zonas de césped que por su estado considere que deben ser objeto de renovación y que deberá ser revisada y validada por los responsables municipales.

Cada año y de acuerdo con las directrices que se establezcan desde el ayuntamiento, la empresa adjudicataria estará obligada a:

- Plantar flores por un valor mínimo de 2.975 euros y arbustos y otras plantas de menor porte por un valor mínimo de 1.500 euros para recuperación de jardines.
- Plantar árboles por un valor mínimo de 500 euros.
- Recuperar un mínimo de 750 m² de césped mediante labrado, nueva siembra y ajardinamiento (si se considera apropiado, esta medida podrá sustituirse por la plantación de más arboles, en este caso con un importe mínimo de otros 500 euros/año).

5.- LABORES DE PODA.

Esta labor se realizará siempre en la época más adecuada y quedará supeditada a las directrices marcadas por el Ayuntamiento para cada especie, lugar y circunstancia, sometiéndose siempre a las siguientes normas de carácter general:

Se podarán en primer lugar las ramas enfermas, estropeadas o muertas.

La eliminación de ramas vivas y sanas solo se justificará para aclarar la copa, para compensar la pérdida de raíces, para dar buena forma al árbol y para revitalizar árboles viejos o poco vigorosos.

Se eliminarán perfectamente las ramas pequeñas que están mal dirigidas, cruzadas o demasiado juntas, tratando de mantener la forma natural del árbol.

Se evitarán las podas muy drásticas, y solo se efectuarán en casos muy concretos y siempre bajo las indicaciones del ayuntamiento.

En las calles se podarán también los arboles para evitar interferencias con cables eléctricos y telefónicos, semáforos, viviendas, tráfico rodado, etc., así como para impedir la posible caída espontánea de ramas.

En todos casos, es fundamente efectuar correctamente los cortes y tratar debidamente las heridas resultantes.

Los cortes se realizarán al nivel de la base de la rama a eliminar, dejando la herida enrasada por la parte que permanece. No se dejarán muñones que sobresalgan por constituir focos de infección y dificultar la cicatrización.

Se tenderá a realizar el menor número posible de cortes, propiciándose los de pequeño tamaño. Estos deberán ser limpios, para lo cual las herramientas que se utilicen deberán estar perfectamente afiladas y desinfectadas.

Todos los cortes cuyas heridas sean de un diámetro superior a 5cms. serán tratadas con un producto fungicida, cuya formulación deberá ser previamente aprobada por el ayuntamiento. Su aplicación deberá realizarse inmediatamente después de efectuada la poda del árbol.

También deberán ser tratadas las heridas producidas por causa accidental o las provocadas por cortes efectuados inadecuadamente en años anteriores.

En parques, plazas y otras zonas verdes, donde los arboles tengan espacio suficiente para su desarrollo, ser podarán con la frecuencia necesaria para mantener un buen estado sanitario, forma adecuada y floración.

Respecto a los arboles de alineación en calles, se diferencian los plátanos y tilos tradicionalmente podados cada año, de las restantes especies de hoja caediza, cuya frecuencia será señalada por el ayuntamiento.

En este sentido, el adjudicatario deberá presentar durante el mes de septiembre un plan anual de poda, para su aprobación con las modificaciones a que hubiera lugar, y en el que deberán incluirse calles, especies, tipo de poda y calendario de ejecución.

El adjudicatario deberá disponer, además de todas las herramientas de corte (motosierras, hachas, tijeras, etc.) necesarias para llevar a cabo esta labor, los medios mecánicos necesarios para la retirada de los residuos de la poda, que deberá realizarse de forma inmediata.

La señalización necesaria para la realización de algunas labores y muy especialmente la de la poda de arbolado de alineación, será por cuenta del adjudicatario, que deberá disponer de todos los elementos necesarios como vallas de obra, señales de tráfico, etc., en número suficiente para la correcta realización del trabajo.

7.- OBRAS NUEVAS Y MEJORAS

El Ayuntamiento podrá crear nuevos macizos de flores, nuevos céspedes, plantar arboles, trasplantarlos, cambiar el pavimento y cuantas actuaciones juzgue oportunas.

Al ser la naturaleza de la adjudicación, exclusivamente de conservación, el adjudicatario no podrá realizar obras nuevas ni mejoras que alteren el trazado o características de los elementos a conservar, salvo autorización expresa del Ayuntamiento.

8.- PERSONAL

El adjudicatario dispondrá del personal necesario para la correcta ejecución del servicio objeto de adjudicación. Al frente de este personal, directa o indirectamente, deberá existir un técnico que acredite su experiencia o formación en materia de trabajos de parques y jardines.

Se exigirá como mínimo la presencia física de dos personas durante seis meses al año y de tres personas durante otros seis meses (labores de poda, siegas de primavera-verano, etc.) para la ejecución de las labores señaladas en todas las fechas que comprendan la oferta presentada.

Entre el personal señalado como mínimo obligatoriamente deberá de haber un encargado y un oficial jardinero.

Se notificará al Ayuntamiento los nombres de los empleados, categorías y demás circunstancias personales, así como las variaciones que se produzcan en las mismas. Los licitadores deberán

indicar en sus ofertas el número de personas necesarias para la realización de los servicios objeto de contratación, así como la jornada laboral y funciones que cumplirá cada uno de ellos.

El adjudicatario deberá en todo momento cubrir las faltas al trabajo que se produzcan, por los periodos vacacionales de su personal o por bajas laborales o por accidente, debiendo de notificar por escrito al Ayuntamiento los nombres de las personas que van a efectuar las sustituciones.

El personal de la empresa adjudicataria en ningún caso tendrá vinculación o relación laboral de naturaleza alguna con respecto al Ayuntamiento de Eskoriatza.

9.- MATERIAL Y HERRAMIENTAS

La adquisición de todo tipo de material, maquinaria y herramienta necesaria para la prestación del servicio, será de cuenta y cargo del adjudicatario, así como los gastos de su conservación y mantenimiento.

Toda la maquinaria deberá encontrarse en perfecto estado de conservación y de limpieza en todo momento, por lo que deberá disponer de los equipos de reserva oportunos.

La totalidad del material, maquinaria y herramienta a utilizar durante la contrata será propiedad del adjudicatario y cuando finalice la contrata seguirá siendo de su propiedad.

Como mínimo deberán contar con el siguiente parque de material:

- 3 desbrozadoras.
- 2 máquinas cortacésped.
- 3 recogedores
- 1 camioneta de pequeño tonelaje para recogida de residuos de limpieza, siega y poda.
- 3 corta setos.
- Pequeña herramienta y utillaje.
- Material para riego (mangueras, lanzadera, aspersores, etc.)

10.- PERIODICIDAD DE LOS SERVICIOS.

El servicio de mantenimiento se llevará a cabo de acuerdo al siguiente programa de trabajo:

- . Marzo, Abril y Mayo: Todas las labores citadas en los apartados de conservación y reposición de los artículos 3 y 4.

- . Junio, Julio, Agosto: Todas las labores citadas en el capítulo 3 de conservación.
- . Septiembre, Octubre, Noviembre: Todas las labores citadas en el capítulo 3 de conservación.
- . Diciembre, Enero, Febrero: Todas las labores comprendidas en los capítulos 3, 4 y 5.

11.- ZONIFICACION, LABORES Y FRECUENCIAS MÍNIMAS EN CADA UNA DE LAS ZONAS

A continuación se detallan las zonas en las que se deberán de prestar los servicios objeto del presente pliego y las labores que se deberán prestar en dichas zonas.

11.1-Bidegorri entre Olazar auzoa y límite con termino municipal de Aretxabaleta

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima: 2 veces/año siega y desbroce

11.2- Cementerio de Apotzaga

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima: 6 veces/año siega y desbroce; 2 veces/año poda de setos y escarda.

11.3- Barrios San Pedro e Intxaurtxueta

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11.4- Jardín de piscina exterior del polideportivo

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima: 2 escardas/año en zona de setos; 11 siegas/año (2 entre enero y mayo, 2 siegas/mes en junio, julio, agosto y septiembre; 1 entre octubre y diciembre).

11.5- Santa Ana auzoa, Gaztanadui kalea y plaza Eduardo Gorosarri

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11.6- Olazar auzoa y cementerio de Eskoriatza

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima:
- Alrededores del cementerio: 2 veces/año siega y desbroce (una durante la tercera semana del mes de junio)
- Tramo entre cementerio y carretera a Bolibar : 1 vez/año siega y desbroce (durante el mes de septiembre)
- Bidegorri entre caserío Sorautz y barrio Dorleta: 1 vez /año, en julio.

11.7 Casco Histórico (Hidalga kalea, Fernando Eskoriatza plaza, Gernikako arbolaren plaza y San Juan kalea)

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11.8- Dorleta auzoa

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
11.9- Arbiñoste pasealekua y Bidebarrieta pasealekua

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima:

- Bidebarrieta (Entre Antontxu y lavadero): 1 vez/año (junio) siega y desbroce
- Arbinoste : 3 veces/año siega y desbroce

11.10- Aranburuzabala kalea y Olaeta auzoa

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11.11 Aingeru Guarda pasealekua

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima: 4 veces/año siega y desbroce

11.12- Rotonda Aingeru Guarda y bidegorri entre rotonda y cruce Kuartuena auzoa

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima:

- Rotonda: 2 veces/año siega y desbroce
- Bidegorri : 2 veces/año siega y desbroce

11.13- Parques del Deposito Viejo, Depósito de Bolibar y Atxorrotz

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego
Frecuencia mínima:

- Atxorrotz: 2 veces/año siega y desbroce
- Depósitos : 4 veces/año siega y desbroce

11.14 Anteiglesias de Mendiola, Bolibar, Gellao, Mazmela, Zarimutz y Marin. Labores en cementerio y junto a iglesia de las Anteiglesias.

Labores: todas las citadas en los artículos 3.1 y 3.10 de este pliego
Frecuencia mínima: 3 veces/año siega y desbroce (una en la tercera semana de octubre)

11.15- Monumento de Landa

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11.16- Parque Bainuetxe (Industrialdea Torrebaso)

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11.17- Museo Ibarraundi

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11.18- Plaza Santa Marina

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

11. 19- Antontxu kalea (entre caserío Antontxu y calle Aranburuzabala)

Labores: limpieza de cunetas y desbroce de talud

Frecuencia mínima: 6 veces/año

11.20- Kuartruena auzoa

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

Frecuencia mínima: 4 veces/año siega y desbroce

11.21- Elorreta auzoa

Labores: todas las citadas en los artículos 3,4 y 5 de este pliego

Frecuencia mínima: 6 veces/año siega y desbroce

12.- ORGANIZACIÓN DE LOS TRABAJOS Y SISTEMAS DE CONTROL

12.1.- Se presentará estudio completo y detallado de la organización del servicio, con indicación de los distintos equipos propuestos, labores asignadas a cada uno de ellos, medios materiales, recorridos, horarios, frecuencias, sistemas de control, etc., y ello para la totalidad de los servicios a prestar.

12.2.- La empresa adjudicataria procederá anualmente a analizar las posibles variaciones que sea conveniente realizar, presentando ante el Ayuntamiento, para su aprobación, un nuevo Plan que recoja estas variaciones.

12.3.- Los servicios contratados estarán sometidos permanentemente a la inspección y vigilancia de la Administración Municipal, que podrá realizar las revisiones de personal y material que estime oportunas en cualquier momento y lugar. La inspección que al efecto designe el Ayuntamiento tendrá acceso a los locales o dependencias del servicio y le serán facilitados cuantos datos precise respecto a la organización del mismo.

Al inicio de cada trimestre el adjudicatario presentará el planing previsto para el trimestre y posteriormente mensualmente, el responsable directo del servicio contratado se reunirá con los responsables municipales para presentar el informe comparativo, valorando en qué medida se han ajustado a las previstas en el contrato, cuáles han sido las desviaciones y sus causas y justificaciones, si las hubiera.

Este informe estará documentado y recogerá de forma clara y concisa todas las operaciones realizadas (actuaciones, explicaciones técnicas, fotografías, incidencias detectadas, subsanación, etc.)